



AGINDUA, 2012ko xx xx Herrizaingo sailburuarena, ostalaritza eta jendaurreko ikuskizunen lokalen ordutegien publizitateari eta identifikatzeko bereizgarriei buruzkoa.

296/1997 Dekretuak, abenduaren 16koak, ezartzen ditu jendaurreko ikuskizunak eta jolas jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk Euskal Autonomi Erkidegoaren eremuan, establezimenduak sailkatzen ditu bakoitzaren jardueraren arabera. Jardueraren arabera sailkatzeak ekarri du, alde batetik, ostalaritza eta jendaurreko ikuskizunekin lau talde sortzea, eta bestetik, joko aretoen taldeak, behar den zaintza eta kontrola egiteko.

36/2012 Dekretuak, martxoaren 13koa, Jendaurreko ikuskizun eta jolas-jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk Euskal Autonomi Erkidegoaren eremuan ezartzen dituen Dekretua bigarrenez aldatzen du. Horren bidez, handitu dira ordutegiak luzatzeko udalek dituzten eskumenak.

Egun, ostalaritza eta jendaurreko ikuskizunetarako lokaletan irekitzeko eta ixteko ordutegia leku ikusgarri batean jarri behar da, abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuaren 6. artikuluaaren arabera. Ordutegi horiek egokitu beharko dira martxoaren 13ko 36/2012 Dekretuak ezarritako ordutegietara.

Bestetik, lokal bakoitzaren kanpoaldean identifikatzeko bereizgarri bat jarri beharko da, bereizgarri hori lokalaren taldeari dagokio, eta horren formatua eta edukia agindu honen eranskinean ezarrita dago. Horren helburua da lokal horien erabiltzaileei informazioa argitzea eta kontrola eta zaintza erraztea.

Esandakoaren ondorioz, honako hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua.-Xedea

Agindu honen xedea da publizitatea ematea jendaurreko ikuskizunetako eta ostalaritzako lokaletan jarri behar diren informazio-kartelei eta identifikatzeko bereizgarriei, 36/2012 Dekretua, martxoaren 13koa, jendaurreko ikuskizun eta jolas-jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan ezartzen dituen Dekretua bigarrenez aldatzen duenaren arabera.

2. artikulua.- Identifikatzeko bereizgarriak

Ostalaritzako eta jendaurreko ikuskizunetako lokalen kanpoaldean identifikatzeko bereizgarri bat jarri beharko da, bertan zehaztuta agertu behar da zein taldetakoak diren, abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuaren 2. artikulua ezarritakoaren arabera.

Identifikatzeko bereizgarriak honako ezaugarriak izango ditu:

- a) Borobila izango da, gutxienez 90 mm-ko diametroa izango du. Euskarri zurrun batean jarriko da (PVC, metakrilato) eta lokalaren aurrealde nagusian, 1,80 cm-ko altuera gutxienez eta gehienez 2,30 cm-ra, artikulua honen bigarren atalean ezarritakoa alde batera utzi gabe.
- b) Euskarrian establezimenduaren taldea agertuko da eta dagokion sailkapenaren zenbakia (1,2,3 edo 4) eta izango ditu Agindu honen eranskinean ezarritako formatua, edukia eta zehaztapen teknikoak.

2.- Lokalak araudi berezi batek hirigintza babestu eremuan sartuta dauden kasuetan baimendu ahalko dira lehenengo atalaren a) hizkian aurreikusita ez dauden bestelako formatuak edo kokapenak dituzten bereizgarriak, betiere, lokala zein taldetan dagoen identifikatzeko balio badu.

3.- Artikulua.- Informazio-kartelak

Agindu hau aplikatu behar den eremuan dauden establezimenduek jarri behar dute barruan eta leku ikusgarri batean informazio-kartel bat, eta bertan zehaztu behar da lokalak ixteko eta irekitzeko ordutegia.

Abenduaren 16ko, 296/1997 Dekretuaren arabera honako ezaugarri hauek izango ditu:

- a) Euskarri zurrunean jarrita egon behar da, gutxienezko neurriak 250 mm ×140 mm.
- b) Establezimenduaren ordutegi orokorra izango du, eta bertan agertuko da lokala zein taldetan dagoen eta dagokion zenbakia: 1,2,3 edo 4.

4.- Artikulua.- Informazioa

Agindu honen eranskinean zehazten diren informazio-kartel ereduak eta identifikatzeko bereizgarriak argitaratuko dira Hauteskunde Administrazio, Joko eta Ikuskizun zuzendaritzaren web orrian, eta erabiltzaileen esku egongo dira pdf. formatuan edo antzekoa den beste formatu batean.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Agindu hau aplikatu behar den eremuan dauden establezimenduek jarri eta egokitu beharko dute ixteko eta irekitzeko ordutegiei dagokien informazioa, eta identifikatzeko bereizgarriak jarri, Agindu hau indarrean sartzen denetik sei hilabeteko epean.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko xx xxean

Herrizaingoko sailburua

RODOLFO ARES TABOADA

Eranskina

Identifikatzeko bereizgarrien formatua, edukia eta ezaugarri teknikoak

Ezaugarriak:

Eskatutako gutxieneko neurriak: 90 mm-ko diametroa

Korporazio koloreak:

1 Taldea – PANTONE: 293 C

2 Taldea – PANTONE: 347 C

3 Taldea – PANTONE: Rubine Red C

4 Taldea – PANTONE: 2592 C

Binilo itsasgarri ganean inprimaketa eta trokel biribila elementu euskarri ganean erantsita (PVC, metakrilato edo antzekoa)

Fatxaada nagusian atxikita 1,80 cm-ko altuerara gutxienez eta gehienez 2,30 cm-ra